

Mugimendu sozialak eta demokrazia Euskal Herrian: intsumisioa eta ekologismoa

Pedro Ibarra, Mario Zubiaga, Iñaki Barcena
EHUko irakasleak

Euskal Herriko mugimendu sozialek, ekologista eta antimilitarista adibide, demokratizaziorako joera bultzatu dute beren argudio zein ekintzen bitartez. Laurogeita hamarreko hamarkadaren azken urteotan, besteak beste, oraindik amaitzeke dagoen gatazka nazionalaren eraginez, Euskadiko aukera politikorako egiturak hertsirik dirau. Hala izanik ere, mugimendu ekologistaren zenbait eskakizunek instituzioen demokratizazioa bultzatu dute.

Prozedura mailan ez ezik, gizarte arloan ere balio demokratikoak indartu dituztela dudarik ez dago; malgutasuna eta tolerantzia, bereziki. Azkenik, intsumituen mugimenduak, edukien inguruko eskakizunak plazaratuz, instituzioen jarrera itsuari kontra egin dio, gizartearen gehiengoak onartzen ez duen derrigorrezko soldadutzaren inposaketak dakarren demokraziaren ukatzea salatuz.

We state, as our main point, that the Basque social movements –ecological and total resistance to military service– with their arguments and mobilizations, have assisted various democratizing processes.

Effectively, at the end of the eighties, due to the violent national conflict which the Basque Country endures amongst other factors, the political opportunity structure in that community was closed. However, the ecological movement, in particular through certain demands, has managed to improve, not only the institutional democracy in some of its procedural aspects, but also to reinforce specific democratic values –tolerance and flexibility– in public debate...

Finally, the military service resistance movement has concentrated its democratizing strategy on aspects of content, pointing out the huge differences that exist between the Establishment and public opinion on the issue of military service, and denouncing the lack of democracy represented by the continued use of conscription against the consistent majority opinion of society.

Testuinguruari sarrera

Euskal Herrian mugimendu sozialen eta demokraziaren –edota zehazkiago, demokratizazio-prozesuaren– arteko harremanak, ezin daitezke Euskal Elkarte Autonomoaren testuinguru politikoari erreferentzia egin gabe uler. Ez gagozkio orain mugimenduen garapenean gertatzen diren aukera politikoaren egituren aldaera ezberdinen eraginari, askoz ere garrantzitsuagoa den faktore bati baizik. Egun, euskal arazo nazionala, –autoidentifikazio nazionalaren aukera ezberdinak, subiranotasun nazionalaren eskakizun-maila ezberdinak, alegia– euskal gizarte politiko nahiz zibilaren ardatza (*cleavage*) da.

Hortaz, bai zaharkituak gertatu diren mugimenduak bai eta egungoak ere, gatazka nazional honetan murgiltzen dira, mugimenduekiko eta hauen eta demokraziaren arteko elkar-harremanketiko aurki ikusiko ditugun ondorioekin. Eder-ek dioen bezala (Eder 1993):

There is no argument outside a story (...) it belongs to the historical experience of modern societies that democracy has always been connected to shared cultural beliefs.

Abertzaletasunaren arazoak ikusmolde eta interpretazio ugari izan ditzake, eta hauetariko asko guztiz kontraesanguratsuak izan daitezke. Edonola dela ere, inolako zalantzarik gabe, beti *shared cultural beliefs* izango da. Nortasun, muga, kanporaketa eta pozak markatzen dute elkar-esparru hau, zeinak, mobilizazio horietako aktore kolektibo, subjektu nahiz igorleek nahi ez badute ere bere

inguruko guztia irensten duen, euskal arazoa kasu. Hau honela izanik, euskal arazo nazionalaz bi hitz esateari derrigorrezko deritzogu¹.

80ko hamarkadan Euskal Herriak estatu espainiarraren barruan askatasun politikoko estatus garrantzitsu eta berezia lortu bazuen ere, gatazka nazionalak berean jarraitzen du. Honela, euskal alderdi moderatuek eta hauen artean Euskal Herrian gehiengo duen EAJ alderdi historikoak, gero eta autogobernurako konpetentzi kopuru zabalagoa eskatu ohi dio gobernu zentralari. Euskal abertzale moderatuen eta Espainiako gobernuaren arteko gatazka ez da, izan ere, garrantzegie; lehenak, behin-behingo, independentziaren ikusmugak indarrean jarraitzen duen bitartean, egunean egungo marko politiko espainola onartzen baitu. Aldiz, tentsioa edo urduritasuna askoz ere handiagoa da euskal ezker abertzalearen eta Espainiako gobernuaren artean. Lehena, ETA erakunde armatua bere baitan hartzen duen mugimendu kapilar batean eratu dago: ENAM zeinak, konstituzioaren marko juridiko-politikoa gaitzesteaz gain, bere esku duen bitarteko guztiez baliatuz –borroka armatua barne–, Euskal Herriaren autodeterminazioa eskatzen duen.

Mugimendu erradikal hau oso esanguratsua gerta dakiguke gure azterketan, ez bakarrik lortu duen kokapen politiko eta sozialarengatik (3. indar politikoa Euskal Herrian eta lehena Gipuzkoan), baizik eta ondoren ikusi ahal izango dugunez, Euskal Herriko mugimendu sozialekin dituen harremanak direla eta.

Laburbilduz, eta herritar gehienak

1. Bibliografian gehigarri gisa erantsi ditugu euskal gatazka nazionalari buruzko ingelesezko erreferentzia zenbait.

ETAren indarkeria salatzen badu ere, era berean ez dago ados lortutako autogobernu-mailarekin, ezadostasun hori azaltzeko modua dena delakoa bada ere. Euskal Herriak, herri nahi du izan.

II. Definizioak eta azterketa-esparrua

a) Mugimenduak

Aurrerago berriro ere lotuko gaitzaizkion euskal arazoari erreferentzia egin ondoren, eskura dezagun gure azterketaren oinarria: mugimendu sozialak eta demokratizazioa Euskal Herrian. Izendapenak, giltzarri diren bi kontzeptu mugatzea eta zehaztea eskatzen du: zer demokrazia edota demokrati-zazioz ari gara hitz egiten? Zer mugimenduren gainean mintzatuko gara?

Bigarren galderari erantzungo diogu lehenik, esanaz, ikerketa honetarako mugimendu ekologista eta mugimendu antimilitarista aukeratu ditugula. Mugimendu ekologistari dagokionez, azken urtetan Euskal Herrian gertatu diren ingurugiroarekiko bi gatazkarik garrantzitsuenetarikoak aztertzen saiatuko gara batez ere: 70eko hamarkadaren amaieran eta 80koaren hasieran gertatzen den buruz buruko edo konfrontazio antinuklearra, eta oraindik ere bero dagoen Nafarroa eta Gipuzkoa lotuko dituen autobide baten eraikuntzaren inguruan sortutako tirabira. Aldiz, mugimendu antimilitaristari erreferentzia eginez, armada eta de-

rrigorrezko soldadutzaren kontra doan eta kontzientzi eragozpena nahiz intsumisioaren ildotik jotzen duen kanpainan oinarrituko dugula gure ikerketa esan beharko genuke. Mugimendu hauek aukeratzekoan, honako hiru irizpide hauei jarraitu diegu:

- Langileen mugimendua alde batera utzirik, –Euskal Herriaren izaera industrialak kontuan hartuz, sustraiak ondo errotutako mugimendua–, azken urtetan mobilizazio-gaitasun handien lortu izan duten bi mugimendu sozial edota mugimendu-koiunturak izan dira².

- Bi mugimendu hauek oso eragin zehatz eta neurgarriak izan dituzte Euskal Herriaren demokratizazioan, eta positiboak ere badirela esaten ausartzen gara.

- Azkenik eta esan bezala, abertzaletasunak –gogo-oinarriak, erakundeak–, izan du eraginik bi mugimendu hauengan, edo behintzat bi gizarte-mobilizazioen prozesu hauengan; modu erabakigarrian lehenaren kasuan (ingurugiroari dagozkion gatazka), eta era zeharkakoan eta erdibidekoan bigarreanean (intsumisioa).

b) Demokrazi motak

Bigarren auziak, mugimendu sozialen azterketan erabiliko dugun ikuspuntu demokratikoari dagokiona hain zuzen ere, zehaztasun handiagoa eskatzen du gure aldetik.

2. Azterketa honetan beharrezkoak ez diren eztabaidak saihestearren eta are gehiago, gaia kontzeptualki zalantzazkoa izanik (Tucker 1991; Olofsson 1988; Melucci 1988), ez gatoz bat mugimendu zaharren eta berrien artean eman den tirabirarekin. Hortaz, ez ditugu mugimendu hauek bi multzotan bereiziko, euren artean sailkapen eta mailak ezarriaz. Mugimendu sozialaren definizio orokor bati lagungarriago deritzogu, aipatutako biak mugimendu sozial guztien multzoan apartekotzat jotzen ditugun bitartean. Definizio hori Diani-rena izan daiteke (Diani 1992), non, giza nahiz gatazka politiko baten aurrean konpromisoa hartzeaz gain, talde-identitate bateratua eta aktore ezberdinen interakzio-sare batean egotea har daitezke mugimendu sozialtzat.

Lehen hurbilketa batean arazoaren nondik-norakoak adieraziko ditugu besterik gabe; oraingoz, guztiok nahiko genukeen demokraziaren edota honen benetako oinarriaren eztabaida alde batera utzirik, demokraziaren gorakadan mugimendu hauek zenbaterainoko erantzukizuna izan duten axola zaigu. Demokraziaren kontzeptu konpetigarriaz baliaturik egingo dugu lan, (Schumpeter 1940), (Sartori 1987), egungo demokrazia (demokrazia modernoa) poliarkia baterantz bideratuko gaituen prozedura-sistema delako ideia gurea egiten dugun bitartean (Dahl 1971, Sartori 1992). Eta ikuspegi honi jarraituz, mugimendu sozial hauek, gobernuaren portaerarekiko kontrola nahiz oposiziorako eta partehartze politikorako eskubidea eraginkorki darabilten gizabanako eta taldeen gorakada sustatuz, bultzagarriago bihurtu duten poliarkia honen sorreran eta garapenean izan duten erantzukizuna zenbaterainokoa izan den aztertu beharko dugu.

Mugimendu sozialek, botere politikoan murgildu ezean, honekiko presioa eragiten dutenez, gizartearen eta honen eta estatuaren arteko harremanen ildotik bideratu beharko dugu azterketa³. Aztertuko ditugun mugimendu sozial zehatzak gizartean bertan eratutako pluralismoa zabaldu eta indartu duen galdetu behar diogu gure buruari (Keane 1993). Gizartea bere pluralismoa gogo handiz adieraz-

teko gauza izan den neurrian –zentzu honetan mugimendu sozialek betetako papera oso garrantzitsua da⁴, praktikan erabaki politikoaren esparru eta prozedurak ere zabalduz joango dira. Estatuak, are demokratikoagoa izango da.

Gure saio honetarako bereziki adierazgarriak diren Eder-en hitzekin (Eder 1993; ikus baita zentzu honetan Merlucci 1988), eman diezaiokegu amaiera erabilgarriak izango ditugun elementuei egindako erreferentziari. Autore honek dioenez, mugimendu sozialek orokorrean, hala instituzioen elkar-iharduera barrutia nola komunikazio publikorako esparrua zabaldu eta suspertzea lortu dute, (hitz hauek ohizko zentzu politikoan soilik ulertu gabe), eta ondorioz, egon dagoen demokrazia areagotu.

Gure lana, adierazi dugun zabal-kuntza hori gure mugimenduen eskutik etorri den egiaztatzea izango da.

Hala ere, gure kasuan *framework* demokratiko honi eskasa deritzogu. Testuinguruari zegokion sarreraren esandakoa berreskuratuz, mugimendu sozialek, mugimendu abertzaleekiko elkar-ihardueran, herrian herriko gatazkan murgilduriko ekintzetan, bestelako dimentsio demokratikoak ikustarazi dizkigute.

Konpondu gabeko defizit nazional

3. Arriskutsuegia izango litzateke mugimendu sozialak, gehiengoan oinarritutako erregelen bidez gauzatzen den demokrazia batetik, adostasunean (Lijphart 1977) edota elkarketan (Lijphart 1984) oinarritzen den beste batera alda daitezkeen planteatzea. Badirudi oraingoz marko kooperatzaile hori, alderdi politikoentzat gorde dutela.

4. Konnotazio baikorraz darabilgu *intentsitate* terminoa. Egiaitan, Sartori-k (1992) zenbait gutxiengo sozialen eskaeren intentsitate "naturala"-ren aurrean zuhertasuna eskatzen du; taldearen izaera minoritario horrek intentsitatea galaraz diezaguke. Inolako zalantzarik gabe, arriskua zehaztu beharra dago, intentsitate hori gehiengoan oinarritutako erabaki-sistema aldatu nahian azaltzen den heinean. Baina jakin ere jakin behar da, pluralismo sozialak, botere politikoan efektu demokratizatzaileak izango baditu, nahikoa argia eta nahikoa trinkoa (indartsua, intentsoa) behar duela izan.

bat egoteak, bere subiranotasun nazionalaren aitortzea eskatzen eta baieztatzen duen komunitate edo behintzat komunitate honen jendekopuru adierazgarri baten galdaketak, hain zuzen, demokrazia erradikalaren erroka dakar behin eta berriz; ariketaz baino, boterearen jabetzaz mintzatu da hau; demokrazia –benetakoa eta guztiok nahiko genukeena–, boterea gizartearen esku dagoenean ematen dela behin eta berriz adierazten diguna, botere hori gizarte horretan praktikatzeko, aldarrikatzeko edota gutxienik gogorarazten baita; hautesleek aukeratutako horien kontrola, menpekotasuna, mugapena eta aldaketa-aukera azpimarratzen duena⁵.

Beste modu batera esanda: gatazka eta diskurtso nazionalak gizartearen aurretikako *frame* (marko) demokratikoa pizten du. Estatuaren –besteen estatuaren– aurrean gizartearen –edota komunitate nazionalaren– sendotzea oso modu zehatzean eskatzen du: oinarritzeko nahiz ezinbesteko jarrera demokratikoen piztera zuzenduta leudekeen gertaera berezien marko demokratiko interpretatibo honen “sentsoreei” lehentasuna emanaz; klase politikoaren handikeriaren aurrean, gizabanakoaren nahiz taldearen betiereko baimenaren eskatzea indartuz; taldearen zati den gizabanakoaren berezko subiranotasuna aldarrikatuz.

Bere ezaugarriak jatorrizkoenetarikoak partehartze ezinbestekoa, talde eta gizabanakoaren autonomiaren defentsa edota eliteko politikoekiko

mesfidantza direlarik, begibistakoa da mugimendu sozialak bereziki kutsagarriak direla “kontaminazio” demokratiko honen aurrean. Era berean, gure bi mugimendu hauek, eta batez ere bigarrenak, desobedientzia zibila dute ezaugarri nagusi. Beraz, egun Euskal Herrian, nahitaezko soldadutzaren kontrako mugimendua intsumisioen mugimendua da, estatuak adierazita koari muzin egiten dion mugimendua; ikusiko dugun bezala sozialki onartua izan den ikur edo zehazkiago, kultura bihurtu den bitartekoa –intsumisioa– alegia, ordezkari politikoen normatibizazioarako gaitasunaren aurrean demokrazia “garbia”-ren lekuko bihurtu dena eta gizabanakoaren kontzientziaren indarrari eta garrantziari lehentasuna eman diona.

Ondorioz, Euskal Herriko zenbait mugimendu sozialek, sistema demokratikoaren zabalkuntza indartu ez ezik, demokrazia, delegatutako boteririk gabeko jatorrizko gizarte primitiboaren –gizabanakoaren– hasiera bateko subiranotasunaren defentsa eta berreskurapen posiblea bere egiten dituen marko interpretatibo baten –kultura baten– zabalkuntzan eta bereziki sakontzean ere parte hartu izan dute, aurrerago ikusi ahal izango dugunez.

Eta ondoren egiaztatzen saiatuko garen honako zabalkuntza hau, hala mugimendu sozialen nondik-norako demokratiko/partehartzaileaz, nola aztertuko ditugun mugimendu sozial banakoaren estrategia zehatzen eraginez gertatu da, bai eta mugimendu

5. Ez goaz orain erradikalagoak eta partehartzaileagoak diren kontzepzio demokratiko hauen birtute eta akatsak (birtuteen defentsarako ikus CB Macpherson 1982; Bachrach 1968; Lukes 1974; bai eta Goodwin 1987 ere) instrumentalak eta konpetigarriak direnekin kontrajartzerara. Aipatu nahi duguna honako hau da: nondik-norako utopikoa eta kontraesanak alde batera utzita, indartsuagoa den eta nortasunaren aberastasuna areagotzen duen demokrazia baten geroa, giza izaeran mantentzen dela, eta, zenbaitetan, loratu ere loratzen dela.

abertzaleekin izandako harremanaz ere.

Aurrera jarraitu baino lehen, abertzaletasunaz eginiko erreferentzia horrek argibide bat eskatzen du. Batera azaldu baditugu ere, mugimendu abertzaletik datorren demokrazia-
ren eskaera ez dator bat mugimendu sozialetatik sortutakoarekin. Lehenak, abertzalegoari ematen dio lehentasuna gizabanakoaren kalterako; bigarrenak, nolanahiko kanpoko ezarpen oren aurrean gizabanakoaren autonomia aurretik jartzen du, gizartetikako inposizioa bada ere. Dena den, bien arteko elkar eragina bere horretan mantentzen da, arrazoiak arrazoi, arerio bera dutelako, Estatua, eta mugimendu hauen artean nolabaiteko indar-oreka bat mantentzen dutelako. Ez da, oraingoz, mugimendu batek bestea irentsiko duen arriskurik, hauetariko bakoitzean emaitza ezberdinak izan ditzakeen elkarrenganako eragina baizik. Mugimendu abertzaleek, ikusiko dugun bezala, euren holismo komunitarista ireki dute; barne-disidentzia onartzen hasiak dira. Aldiz, ikertuko ditugun mugimendu sozialek, euren hitzaldiaren edukiak bai arrazionalki bai eta samintasunaren aldetik ere areagotu egin dituzte estatuaren kontrako diskurtsoan. Bide ezberdinak eta emaitza bera: kontzientzia demokratikoaren zabaltzeko baliabideen ugaritzea.

Ez da egia borobila (ez eta, orokorrean, ihardupidearen ildoan ere) (Kaase 1993) mugimendu sozialek zentzu zabalean, gizartean sistema demokratiko alternatiboak eraikitzeko proposamen zehatzak maiz aurkeztu dituztela esatea. Mugimendu sozialak, alderdi edota egungo legebiltzardun estatu demokratikoko bestelako erakunde politikoen gelditzearen edota

urruntzearen aurrean erantzunak eskatzeko sortzen dira (Pasquino 1988); ez borondate politikoaren elaborazioaren mekanismoak aldatzeko, baizik eta mekanismo horiek behar den bezala funtziona dezaten (hau da, sistema politikoaren erregela eta mugetan barna ahalik eta partehartzearen maila gorenarekin), eta horrela, mugimenduek aurkeztutako edukien arazoei irtenbidea eman diezaieten.

Hala ere, iritzi hau ez da guk nahi bezain argia Euskal Herriko gure mugimendu sozialetan. Bada, lortzen diren gorakada demokratikoak –tresna/ihardunbide eta sustantibo/kontzientziazko mailetan, bederen–, ez dira mugimenduen erreklamazio “materialen” ondorio zuzena; bai ordea, euren erreibindikazioen eskarian mugimenduek erakutsitako presio, mobilizazio-indar nahiz giza laguntza lortzeko gaitasunarena, hain zuzen ere; are gehiago, mugimendu horiek egin eta egiten duten diskurtso demokratiko zehatzarena, hori guztia –beraiek nahi adinako izan ez bada ere–, demokratizazio politikoaren onerako gertatu baita.

Edonola ere, orain arte ikusitakoak bi mugimenduen giza mobilizatorako arrakasta aztertzea eskatzen du, ukaezina baita euren deialdi eta diskurtsoetan adierazitako demokratizazio-egitarauen erakargarritasuna handia izanik ere, mobilizazioaren arloan porrota pairatuz gero, ikusiko ditugun zuzenketa demokratiko positiboak ez lituzketela inoiz lortuko.

Arrakasta hauek aztertzerakoan, hau da, bi mugimendu sozial hauek lortu duten giza mobilizazio garrantzitsu horren zergatia azaltzerakoan, bi zehar-bide erabiltzea erabaki dugu,

mugimendu sozialen loratze eta egonkortasun-baldintzaz Neidhart/Rucht (1992)-en koadroa lagun. *Frame analysis*-ari dagokiona, (hiru mailatan: diagnostiko/eskandalua, nortasuna eta pronostiko/itxaropen estrategikoa) (Neidhart/Rucht 1992; Snow/Benford 1988; Gamson/Meyer 1992, Hunt/ Benford/ Snow 1993), diskurtsoa, hala mugimenduaren talde-nortasuna indartzeko nola euskal gizartearen esparruan eskura dezakegun eta ditzakegun kultura eta kulturen berarenganako lotu eta pizteko gauza izan den ikus dezagun. Eta egitura-mailari dagokionez, *Aukera Politikoa-ren Egitura* erabiliko dugu (*political opportunity structure*, Eisinger 1973, Tarrow 1989, Wistchelt 1986; eta oraintsuago Kriesi 1991, Della Porta 1988, Koopmans 1993, Diani eta Van Der Heijden 1993, besteak beste), hitzaldiarekin batera mugimenduen mobilizatzeko gaitasuna ulertzeko faktorerik adierazgarrienetarikoa bat iritzi diogulako.

III. Intsumisioa Euskal Herrian⁶

a) Sarrera

Egun, estatuan diren 5.500 intsumisioetatik, 3.500 bat Euskal Herrikoak dira⁷. Hau da, 3.500 gaztek Nahitaezko Soldadutzari eta euren kontzientzi eragozpenak dakarren PSS-ari (OZS Ordezko Zerbitzu Soziala) uko egiten diote. Intsumisioen helburua ez da bakarrik, kontzientzi arazoak direla medio, NSa ez betetzea; areago, NSa deuseztu nahi dute, gaur eta etorkizun-

nerako, armada guztien desagerpenaren bidea urratuz. NS zilegiztatzen duen sistema bat delako ustean, PSSa gaitzesteagatik justiziari aurre egin behar izan diote. Hauetariko 1.500 baino gehiago prozesatu eta epaituak izan dira. Une honetan (1994ko Maiatza) 75 preso dira Euskal Herriko espetxeetan.

Nondik dator mugimendu hau? Ikuspegi historiko estu batean, 70eko hamarkadaren amaieran estatu espainiarrean sortzen diren kontzientzi eragozpenerako mugimenduetan bilatu behar ditugu oinarriak; kontzientzi eragozpena bideratuko zuen lege baten ezarpenerako une haietan borrokatu ziren mugimenduetan, hain zuzen ere. 1.984an gobernuak lege hori onartzen badu ere, mugimenduek eskasa dela diote, eta euren estrategia antimilitarista areagotuko dute. Orduetik hona, lortu nahi diren helburuak, alde batetik kontzientzi eragozpena ahalik eta gehien zabaltzea eta NS nahiz PSSa deslegitimatzea izango dira, beti ere intsumisioaren bidetik.

Mugimendu antimilitarista hau, zeinaren "banguardia" 1989az geroztik intsumisioa den, zenbait talde ezberdinetan eratzen da. Zaharrena eta zabalduena –Euskal Herrian ere– KEM (Kontzientzia Eragozpenerako Mugimendua) talde independentea da, zeinak militarismoaren ezabapena (armada guztiak barne, noski), berdintasunean oinarritutako gizarte-eraketaren alde eta Estatuaren aurkako borrokan indarkerian oinarrituko ez den herri-desobedientziaren estrategia

6. Bibliografian desobedientzia zibila, kontzientzi eragozpena eta intsumisioari buruzko ingelesezko zenbait testu aipatzen ditugu, bai eta Euskal Herrian ematen diren eragozpen eta intsumisioari buruzko gaztelaniazko bi ere.

7. Zifrak batezbestekoak dira, Gobernuak ez baitu erroldarik aditzera eman.

proposatzen duen ⁸.

Aurrekari historiko hauetatik abiatuz, mugimenduaren beraren baitan leudekeen hiru ezaugarri edo oinarritzko hastapen aurki ditzakegu Euskal Herrian:

- Inolako zalantzarik gabe, mugimendu sozial bat da: sare-egitura batean ematen den elkarrekintza funtsgabea, elkarrekiko talde-nortasuna, publikoa eta pribatuaren arteko elkarlotura, ekintza-bide alternatiboa, etab.⁹

- Ez da lehenik eta soilik Euskal Herrian sortzen den mugimendu soziala, gure herrian oso errotuta dagoen mugimendu estatuala baizik. Jatorri honek nolabaiteko askatasuna eskaintzen dio gatazka nazionalaren eta zehazkiago indarkeriaren edota euskal arazo nazionalaren aurrean.

- Dena den, askatasun hori –eta ez erabateko neutraltasun hori– erlatiboa da nolahi ere. Ikusi ahal izango dugunez gatazka nazionalak, bere zentzu guztietan, mugimenduaren aukera politikorako zabalkuntzan, hitzaldian eta egituran oso era adierazgarrian eragin du.

b) Datuak

Mugimendu honen errotze-mailari eta herriaren oniritziari buruzko zenbait

datu adieraziko ditugu, beti ere Estatukoekin alderatuz.

Intsumisoen kopurua: 3.300, Estatuan 5.500 direlarik. Kontutan izan behar da estatu espainiarrean 38.000.000 biztanle direna, hauetatik 3.000.000 Euskal Herrian.

Kontzientzi eragozleen kopurua: une honetan 226.000 dira. Daramagun urte-sasoi honetan 36.000 bat dira dagoeneko; honek esan nahi du 1994ko bukaerarako 90.000 bat izango direla, hazkunde-erritmoa mantentzen bada, bederen. Estatuak PSSa egiteko nahikoa postu lortu ezin ditzakeenez, milaka eta milaka gaztek ez dute ez NS ez eta PSSa beteko. Bestalde, estatuak ezin izango du bere soldadu-kupoa bete (urteko 208.000 gazte), hain altua baita kontzientzi eragozleen kopurua. Estatuan, kontzientzia eragozpenaren batezbestekoa % 29,06an kokatzen da, eta Euskal Herrian %50,04raino iristen da.¹⁰

Iritzi publikoari bagagozkio, honako datu hauek aipatuko genituzke: 1.993an euskal herritarren %1,1a zen intsumisioa zigortzearen aldeko (Espainia mailan %15aren aurrean)¹¹. Dinamika honetan murgiltzen bagara, ezin ahantz dezakegu eragozleek eta intsumisoez Euskal Herriko 100 Udaletxe baino gehiagotatik lortutako edonolako laguntza. Udaletxe hauek gazteen soldadutzarako deialdiak ez bideratzea

8. Euskal Herriko beste talde garrantzitsu bat KAKITZAT da, ezker abertzalearekiko lotura estuagoak dituena eta ez-biolentziaren aldeko posizio instrumentalagoak darabiltzana, ez MOC-ek bezain filosofikoak. Azkenik, AOCa (Kontzientzi Eragozleen Elkarte) dugu; intsumisioari buruzko posizio ez oso argia duen eta talde politiko erdi-ezkertiarrek bultzaturiko eragozleen elkarte txiki bat da.

9. Teoria “klasikoak” mugimendu sozial berriei leporatutako ezaugarriak (Offe 1986). Baina bere garaian esan genuen bezala, ez dugu kontzeptu hau gure nahi zehatzean eztabaida burugabeak sortzeko erabiliko.

10. Iturria: Kontzientzi Eragozpenerako Mugimenduaren hiruhileko boletinak. (MOC). Bereziki urtarril eta maiatzakoak.

11. Iturria: Rafael Ajangiz (1994) *Eritzi publikoa kontzientzia eragozpenaren eta arazo militarren aurrean*, Hirugarren zikloko Ikerketa. Gizarte eta Politika Zientzien Fakultatea, UPV/EHU.

erabaki dute. Bestalde, eta euskal erakunde gorengoan mailan, Eusko Legebiltzarrak berak intsumisioaren despenalizazioa lortzeko hainbat adierazpen bideratu izan ditu (azkene-koa, 1993ko Apirilaren 6an).

Alderdi politikoen ikuspuntutik, oso argigarria iruditzen zaigu mugimen-
duak arras indar politiko ezberdinen eskutik laguntza jaso izana; Euskal Herrian gobernu-lanetan ari den EAJ moderatutik hasi (badira 1989az geroztik NSren aurkako adierazpe-
nak) eta ENAMren gazteria osatzen duen JARRAI erakundearen amaitzeko, zeinak, nolabaiteko mesfidantza-garai baten ondoren, erabateko laguntza eskaini dion (1993ko Azaroaren 20ko adierazpenak).

Azaldutako datuak, mugimenduaren arrakasta paregabearen lekuko dira. Eragozle nahiz intsumisioak gero eta gehiago dira. Gizarte- eta politika-
-arlotatik lortutako laguntza (oso esparru ezberdinetakoa gainera) ikaragarria da. Estatu atzera jotzen ari da. Intsumisioaren despenalizazioaren egitasmoa burutzen ari da eta NSren ezabapen-proposamenak gero eta jarraitzaile gehiago ditu, bai eta Defentsarako Ministerioan bertan ere¹². Zer dela eta honelako arrakasta? Eta zergatik Euskal Herrian bereziki?

c) Diskurtsoa

Mugimenduaren diskurtsoa azter-
tzeko, lehenik, mugimendu hau nola

gauzatu eta gizartearen aurretikako marko kulturalekin nola elkartzen saiatu den ikusiko dugu.

Lehenik, diagnostikoa, arazotasuna edota –Neidhart/Rucht-en (1992) adierazbide esanguratsua erabiliaz– eskandalizazioa aztertuko ditugu; baliabide enmarkatzaileek, aldatu nahi den egoeraren bidegabekeria nola areagotzen duten aurkitu –ondorioz, mezuaren hartzailea gaizbidekatuz, haserretuz– behar da. Gure kasu honetan, diskurtso *frame* hau errepre-
sioa da. Errepresio bidegabekoa, errepresaliatua ez baita biolentoa, suntsitzailea. Bere kontzientziak NSri uko egiten dion eta armaden indarkeria instituzionala deuseztatu nahi duen norbait da, besterik gabe. Hona iru-
dia¹³. Bere indar astintzailea areagotu egiten da Euskal Herrian. Euskal ezker abertzaleak erresistentzi kultura baten eraikuntzaren lidergoa hartu zuen frankismo garaian eta iragapen edo transizio demokratikoan; herri-erresis-
tentzia Espainiako estatuaren errepre-
sioari aurre egiteko; errepresioaren aurrean sentikortasuna eta instituzioe-
kiko mesfidantza. Bereziki gazteen artean zabalduta dagoen kultura edota errealitatearen marko interpretatzaile horretan begi onez ikusten da adierazi-
tako errepresioaren kontrako mezu salatzailea. Horrela, erresistentziaren kulturak, errepresioaren kontrakoa denak, “berezko” haserre hori areago-
tzen eta indartzen du, bakezaleak espetxeratzen dituen gobernu baten aurrean.

12. Beste arrazoiak beste, ikusi dugun bezala, eragozleen errotua mantentzen bada, 1995ean espero den talde edo multzo militarra betetzea ezinezkoa izango baita.

13. Ondoren azaltzen den testu oro, mugimendu antimilitaristaren taldekide nahiz aldekoen iritziak dira.

«Ba al du, printzipio demokratikoetan oinarritzen den sistema politiko batean lekuri gazte bati bi urteko kartzela zigorra ezartzea bere kontzientziak soldadutzari ezetza ematea eskatzen diolako?», *EI País* 98-11-16.

«Kontzientziako presoak gara, inondik ere delitutzat jotzen ez dugun jarrera bategatik», *Egin* 93-8-20.

Errepresioa izan da gobernuaren erantzuna, baina hain da argia errepresio honek mugimendutik izan duen berrerabilpen arrakastatsua, non publikoki adierazteko inolako beldurrik izan ez duen:

Gaur, militar nahiz gobernuaren aurrean arazo bihurtu bagara, inongo herriak lortu ez duena lortu badugu, errepresio hori gure alde jartzen jakin izan dugulako da, gure bitartekorik eraginkorren bihurtzen jakin izan dugulako da (Intsumiso baten iritzi artikulua, *Egin* 93-9-13.).

Nortasun-estrategian (*frame*-an), mugimenduak kanpora begira diskurtsoaren bidetik lortu nahi duen helburua honakoa litzateke: taldeak laguntza jasotzea edota begi onez ikusia edo behintzat onartua izatea; eta barrura begira, aldiz, taldearen iraupena eta militantzia baikorra izatea, talde-nortasuna definitzeko helburuarekin bidea markatzea eta esparru bakan eta guztierkeoa mugatzea.

Bi diskurtso *frame* nagusiak, taldearen nortasunaren eratzailleak, antimilitarismoa¹⁴ eta bitarteko bortitzen erabileraren aurrean emandako urrunketa izan dira kasu honetan¹⁵.

Bi *frame* hauek, –barnerako lotura eta kanporako elkartasuna direla eta– eragozle/intsumisoen nahi edota gogo

mobilizatzaileen aurrean egokiak geratuko direla uste dugu, zeregin ezberdinak bete behar izan badituzte ere.

Alde batetik, antimilitarismoak oso modu errazean egin du bat gizartean soma daitekeen Espainiako armadaren aurkako kulturarekin; frankismoarekin eta honen autoritarismoarekin identifikatzen den armadaren gaitzespenari zentzu orokorrean eta NSren gaitzespenari zentzu murritzean, gizarteak, sozialki onartutako baloreen kontrakoa bezain baliogabea iritzi baitio¹⁶.

Ukapen hori askoz nabariagoa da Euskal Herrian¹⁷, armada, euskal aberriaren ganean estatu espainiarrak eragindako zapalkuntzaren irudia izan baita. Berriro ere abertzaletasuna *fuelling* lanetan.

Ikus nola, antimilitarismoak, armadaren aurkako *frame* kognitibo erasogarri horrekin bat egiten eta bide batez *frame* hori mobilizatzen duen. Ez da bidezkoa, alabaina, helburuak edota ideologi egitasmoak errealitatea isladatuko duten eta hitzaldiari lehenetasuna emango dioten *frame*-ekin nahastea. Bada, *frame*-en arteko lotura –Snow-ek aditzera emandako aldaeran, behar bada kasu honetan (Snow et al. 1986)–, erdibideko epe batean ikuspuntu mobilizatzaile batetik

14. «Kontzientzia antimilitarista..., armadan defentsore sutsuena duen ideologia militarista...-ren aurrean», *El Mundo* 89-12-16.

Intsumisoak, «armadaren deslegitimazio soziala eta militarismoaren alde legokeen edonolako gobernuaren deslegitimazioa (...) bilatzen du», *Egin* 93-9-13.

15. *Ez-biolentzia* adierazbidea filosofikoegia iruditzen zaigu eta *pazifista* berriz, oso erdibidekoa. *Frame* honen adibide gisa: «Gizarteak argi ikusi du gatazkak bide ez-biolentoetatik ere gaindi daitezkeela», *El Correo* 93-12-21.

16. Alferrikakoa, armada profesional bat askoz ere eraginkorragoa dela uste duelako; alferrikakoa, gazteek, ondoren bizitza zibilean erabilgarri izango duten ezer ikasten ez dutelako; alferrikakoa, buruan sartzen dizkieten usteak, abertzalekeria sutsuaren baloreak, disziplina zorrotza etab., sozialki gaitzetsiak eta denboraz kanpokoak direlako.

17. Iturria: R. Ajangiz 1994. Instituzioen baloraziorako 1-10 bitarteko eskalan, Espainian armadak 5,37 puntu dituen bitartean, Euskal Herrian 3,35.

emankorra gerta badaiteke ere, –NSrekin amaitzeko gogo–, gizar-teak ez du, mugimenduak ez bezala, erabateko ideologia deuseztagarria; armada profesional bat beharrezkoa delako ustetan dago¹⁸. Honegatik, NSa desagertzen den unean mugimenduak jasoko duen laguntza behar bada ez da hainbestekoa izango.

Bigarren ezaugarriaren egitekoa –indarkerian oinarritzen ez diren borroka modu ezohizkoen bereganatzea, nolabait esateko– argitu beharrean gaude. Faktore hori eta bere nortasuna adierazten duen diskurtsoan erabiltzea, kanpora begira egiten den zerbait dela uste dugu. Ez da mugimenduaren barnetik somatzen den taldearen identitatearen ezaugarri bat, taldearen eratzaille eta laguntzailatzat har dezakeguna; aitzitik, mugimendutik at dagoen gizarteak positiboki balioetsitako aukera identitarioa da, laguntza-beharraren aldetik eraginkorra gerta daitekeena.

Alde honetatik, mugimenduak egun Euskal Herrian nagusia den ETaren indarkeriaren aurkako kulturara hurbildu du bere diskurtsoa. Hasiera batean, Euskal Herriko gorengo edo elite politiko nagusiek, intsumisioaren fenomenoaren erradikaltasuna mesfidantzaz ikusi bazuten ere, ondoren mugimenduaren alde azaldu ziren, besteak beste, ETarekiko mugimenduaren jarrera zela eta. Alabaina, honek ez du ekarri ETaren aldeko mugimendu erradikalaren mugimenduarekiko etsaitasunik, honek erakunde armatuaren indarkeriari zuzenean erasotu ez dion heinean. Horregatik, mugimen-

duak Euskal Herrian aurki daitezkeen, eta ustez kontrajarriak diren bi kulturak erabili ditu bere onerako: erresistentziarako kultura nazionala, errepresioaren kontrakoa, zeinaren sorreran eta garapenean ETAk zerikusi handia izan duen eta duen, eta indarkeriaren kontrako kultura, non ETAk, alderantziz bada ere, protagonismorik handiena duen.

Hirugarren diskurtso-estrategia (*frame*) bat, diagnostiko eta prozesuaren artean murgiltzen dena, edo hobeki esanda, diskurtsoaren bi estrategietan (*frame*-etan) une batez aritzen dena, *frame* demokratikoa da, lan honen hasieran adierazten genuen terminoaren zentzu erradikalean; hain zuzen ere, estatuaren gainezartzearen¹⁹ aurrean gizabanakoaren subiranotasuna gailentzen du, bai eta gizarte zibilaren²⁰ talde borondatea gobernua-
ren gainetik jartzen. Nahikoa minberagarria, nahikoa bizia den aurreko kultura demokratiko batekin zalantzarik gabe bat egiten duen diskurtso demokratikoa da. Izan ere, jaio berri den kultura bat baita (frankismoa oraindik ere ez dago hain urruti), nolabaiteko ingenuitate mantentzen duen eta gorengo politikoen kontrola eramango duen “herri-subiranotasun” eraginkor baten itxaropenean bizi den kultura berria, hain zuzen. Kontzientzia honi, berriro ere kultura nazionala eranstean zaio (90eko hamarkada honetan, “komunitatezalea” baino, “gizartezalea-
goa”), zeinaren bidetik estatu espainiarren aurrean euskal nazio/gizartearen betidaniko botere erabakitzailea erreibindikatzen den; arrazoi estrategiko ezberdinak badira ere, intsumisioen

18. Edozein kasutan, –ikus berriro ere berezitasuna– Euskal Herrian herritarren %17a armadaren desagertzearen aldeko da. Iturria: R. Ajangiz 1994.

19. «Norbere borondatearen indartzea estatuaren beraren aginduen aurrean», *Egin*, 93-8-13.

20. «Gizarte zibilaren autonomia indartzea», *El Mundo*, 93-8-30.

eta managaitz edo desobediente zibilen aitzindari da demokraziaren defentsa elikatzen eta hazten duen betidani-ko antiestatalismoa hain zuzen ere.

Azkenik, egitasmoen testuinguruari egin behar diogu erreferentzia diskurtsoaren esparru honetan; hau da, nola diren aurkeztuak modu baikorrean estrategia eta mugimenduaren etorkizuna. Esan beharrik ez dago oso erraza zaigula kasu honetan diskurtsoari dagozkion baliabideak aurkitzea. Egintzak baitira hurbil dagoen garaipenaren baieztapen itxaropentsuak egiazkoak direla frogatzen dituztenak²¹. Eta hemen ikus daiteke argiago diskurtsoaren eraginkortasuna, gizartea, mugimendua –bere garaian adierazi genuen bezala– benetan zabaldu eta lekua hartzen ari dela konturatzen den heinean, diskurtsoan erabilitako *frame*-ak enpirikoki sinesgarriagoak direlako (Snow/Benford 1988).

d) Aukera Politikorako Egitura

Aukera politikorako egitura modu murriztu batean aplikatuz²², ondoko emaitzak lortu ditugu.

“Sistemaren sarbide” maila (Tarrow 1989) balioaniztuna da. Alde batetik soldadutza bideratzen duen kompetentzia estatuaren esku dagoelako (eta ez euskal erakunde autonomikoaren esku) eta bestetik bere insti-tuziorik estuenaren inguruan mugitzen delako: Indar Armatuak. Horrek guztiak *input* instituzionala murrizten du zentzu batean, Espainiako sistema politikoaren ohizko sarbide eskasak aipatu gabe (ikus mugimendu ekologistan azal dutako erreferentzia).

Alabaina, behin kontzientzi eragoz-

pena planteatzeko aukera aitortuz gero, –legezkoa, 1984. urteaz geroztik– mugimenduaren esparrua zabaldu egin da, PSSa soldadutzaaren lehen-tasunaren aurrean eman den erantzun bihurtu bada ere. Eta hori guztia soldadutzarako deialdirako nahiz PSSrako kompetentziak askotan lotu gabeko eta koordinatu gabeko instituzio ezberdinen artean banatuta daudelako.

Dena den, egoera honek instituzioek arazo honetan duten erabakien gainezartzerako gaitasunarekin zerkusi handia du.

Hala, *output*-aren aurrean instituzioak erakusten duen ahulezia begibistakoa da (ikus azpiko erreferentzia), esan bezala, bai NSren eta PSSren ezarketa, bai eta intsumisoei atzera eragiteko azaldu diren ihardunbideak ere, oso erakunde ezberdinen eskuetan daudelako (Udaletxeak, eragoz-leak jaso behar izaten dituzten EEGak –Erakunde Ez Gubernamentalak–, epaileak, etab...); azken batean, hainbat herri-erakunderen eta zenbait epaileren oposizioa bai eta EEG batzuen laguntza eza ere gehitu behar zaion sakabanatzea gertatzen da, hain zuzen ere. Baina porrotik nagusiena, gobernuaren helburu estrategiko garrantzizkoenei erreferentzia egiten diona da: ez du nahikoa leku PSSan kontzientzi eragozleentzat; ezin ditu armadaren nahitazeko deialdiak bete, eta intsumisioa areagotuz doan heinean NSren aurrean sortzen den oposizioa gehituz doa.

Elkarketa edo aliantza-sistemei gagozkielarik, esan behar dugu mugimenduaren aliatu potentzialak abertza-

21. Mugimenduaren ofentsiba geldiezinaren aurrean gobernuaren estrategia eta defentsarako bitarteko bereziei buruzko adierazpenak sistematikoak dira.

22. Bost edo sei garrantzitsuenak aipatuko ditugu.

lego erradikala (ENAM), ezker abertzalearen esparruan murgiltzen diren beste talde zenbait eta egun, IU/EBn parte hartzen duen Alderdi Komunista direla. Lehenak, harreman hotz samarrak izan ziren garai baten ondoren –beti ere harremanak, zeren gazte-talde nahiz sareen soldadutzarako deialdiaren arazoa agerian baitzegoen– elkarlanean hasi dira, JARRAI erakundearen bilakaeran adierazten genuen bezala²³. Ezker ez-gubernalari dagokionez, elkarlan hori betidanik eman izan da.

Hala ere, harrigarria da elite *alignement*-a, zentzu batean, elkarketa sistemarekin nahastu izana. Euskal Herrian errotutako elite politikoez, alderdi abertzaleek, –EAJ barne–, mugimenduarekiko begirunea azaldu dute; gure ustez bi arrazoi hauengatik: alde batetik, mugimenduak indarke-riaren arazoan alderdi abertzale moderatuen talde politiko-instituzionalaren areriorik nagusia den ETaren aldeko ENAM erradikalaren aurrean tarte “zuhur” bat gordetzen jakin izan duelako, eta bestetik, NSren kontrako errebindikazioari alderdi hauek hautesleei begira euren abertzaletasuna indartzeko erabilgarria iritzi diotelako, hori guztia, estatu espainiarrarekin eta gobernuan duen PSOErekin mantentzen dituzten harremanak desorekatzeko edo apurtzeko arriskurik gabe, noski.

Ondorioz, azken alderdi hau, PSOE, alegia, eta PP alderdi kontserbatzailea dira errebindikazio hau begirunez ikusten ez duten talde politiko bakarrak.

Laburbilduz, aukera politikorako egitura (*input* nahikoa irekia, *output*

oso ahula, bazkide boteretsuekin elkarketak nahiz banatutako eta gehienetan mugimenduaren aldeko elite politikoak) oso baikorra izan da mugimenduarekiko.

IV. Euskal mugimendu ekologista demokratizazioaren eragile

a) Sarrera

Euskal Herrian mugimendu ekologistak, intsumisioaren mugimenduaren aldean oso ezberdin bihurtzen duen hainbat berezitasun ditu. Gure inguruan ere, Europa eta Iparramerikan “mugimendu sozial berriak” deituak izan diren horien loratze-baldintzak aurki ditzakegu, frankismoaren eraginez bai Euskal Herrian bai eta estatu espainiarrean ere 70eko hamarkada arte itxaron behar izan badugu ere. Modernizazioak eragindako aldaketetan (naturan eta giza harremanetan), materialismoaren ondoko balore berrien agerketan (identitatea, ekonomia, bizi-kalitatea...) eta zentzu batean, ondoren ikusi ahal izango dugunez, egitura politikoen zaharkitzean (garaiz lehena, kasu honetan), aurki dezakegu instituzioen irekiduraren eta malgutasun ezaren zergatia. Baina 70eko hamarkadaren erdialdean, euskal gizartetik sortutako beste hainbat mugimenduren antzera, –euskal hizkuntzaren berreskurapenaren aldeko mugimendua, esaterako–, mugimendu ekologista abertzaletasunari oso hertsiki lotuta jaiotzen da. Edota hobeki esanda, mugimendu honen errebindikazioak, eskaerak, ezker abertzalearen inguruan, ENAMaren inguruan, gauzatu eta areagotuak izango dira, hain zuzen ere. Honek, Euskal Herriaren eskubide nazionalen

23. EAJk, PSOErekin batera gobernatzen du EAEan, beti ere gehiengo mantentzen duelarik.

alde jokatzea eskatuko du, eta mugimendu ekologistak, antimilitaristak ez bezala, bide horri helduko dio.

b) Lemoizko Zentral Nuklearra eta Leitzarango Autobidea

Euskal mugimendu ekologistak burututako borrokarik sutsuenetatik, mobilizazioaren aldetik adierazgarriena iruditu zaizkigun bi aukeratu ditugu, bai eta gizartearen demokratizazio-prozesuan eskaini duten laguntzagatik ere. Lehen, borroka antinuklearra, mugimenduari izena eta izana ematen diona da. Espainiako Industria Ministerioaren eta Iberduero enpresaren nuklearizazio-egitasmoetan (1972-73), zazpi erreaktore nuklearren eraikuntza planteatzen zen Euskal Herrirako. Berrindartze industrial eta autarkia politikoko urteak ziren. Nuklearra oso negozio emankorra zen eta EEBB eta Frantzia bezalako nazioek horretan ziharduten. Sistema politikoa autoritario batean ia ez da arazorik sortzen, eta Franco hil zenerako (1975-XI-20), Lemoizko zentral nuklearreko obra-lanak hasiak ziren.

1.976. urteaz geroztik, frankismoaren ondoko sistema deusezten hasten denean, mugimendu sozial garrantzitsu bat antolatzen da egitasmo nuklear horren aurka; Bizkaiko Bizilagunen Elkarte eta Euskal Kostalde Ez Nuklear Batentzako Komisia izan ziren erakunde aitzindariak. Ondo-ren, 1977an eta Euskal Herriko auzo eta herrietan Komite Antinuklearrak sortu ziren.

Askatasuna lortzeko irrikia eta aldaketa politikoa eguneroko bihurtu zireneko garai hartan, autonomiaren aurreko eta ondorengo euskal institu-

zioak egoera larrian utzi zituen ahots eta borondate ugari batu zituen egitasmo nuklear horren aurkako borroka. Erreaktore nuklearraren instalazioaren aurka mobilizatu ziren hainbeste gizon nahiz emakume euskaldunentzat,

Lemoizekin, Euskal Herrian sutsuki eskatutako autodeterminazioa eta askatasuna lortzeko aukera betirako desagertzen zen²⁴.

Gure azterketarako aukeratutako beste garaiak, hamarkada bat geroago, gizartean eta komunikabideen munduan oso garrantzia handia izan zuen kanpaina ekologista bati egiten dio erreferentzia. Gipuzkoa eta Nafarroako Foru Aldundien eta geroago (1989an) *Lurraldea* izenaz ezagututako den Autobidearen Aurkako Koordinadoraren (1985) artean gertatu zen. Istilua, Irurtzun eta Andoain arteko Donostia eta Iruñea lotuko lituzkeen autobide berri baten eraikuntzarako bi Aldundiek buruturiko egitasmo bateratuaren ondorioz gertatzen da. Autobidearen Aurkako Koordinadorak, egitasmo honen hasiera-hasieratik bere erabateko ezadostasuna azalduko du, Gipuzkoan geratzen den azken inguru ez-urbanizatu suntsituko litzatekeelako (Leitzarango), eta egitasmo honen eragin ezkorrak ibilbidearen beste zenbait zatitan ere ikusiko liratekeelako; irtenbide modura, egungo Donostia eta Iruñea arteko errepidearen hobekuntza planteatuko dute.

Egin dugun aukera ez da kasualitate hutsa. Bi kasuetan, irakurketa eta izaera ezberdinekoak izan badira ere, mugimendu ekologistak oso arrakasta adierazgarriak izan zituen. Arrakasta hauek, gure ustez eragin demokratizazioa aipagarriak izan dituzte.

24. Honela sistemaren aurkako ENAMren indarra, mugimenduaren esku geratzen da.

Ingurugiroaren defentsarako borroka hauek, esparru historiko ezberdinetan, administrazio- eta politika-araubide ezberdinen aurrean eta helburu ezberdinekin (zentral nuklear baten eta eginkizun zegoen autobide baten obralanen geldiera) euskal gizartearen multzo handi baten mobilizazioa lortu dute, alabaina. Egitasmo instituzionalak bideraezin bihurtu dituzte, eta Leitzarango kasuan, mugimenduak, baliozko solaskidetzat onartua izateaz gain Gipuzkoako ibilbidea aldatzea lortu du. Arrakasta hauek ezinezkoak gertatuko ziren Euskal Mugimendu Ekologistak ENAMen eskaerekin eta oinarriekin bat egiten jakin izan ez balu; oinarri hauek, egitasmo instituzionalari betoa ezartzeko beharrezkoak diren giza nahiz tresna-baliabideak eskaini dizkiote. Ekologismoa eta abertzaletasuna bat egiteko dinamika honek kritika, ondoeza eta hausketa ugari ekarri ditu, batez ere adiskide abertzale horren inguruan eta areago, bi kasuetan parte hartu izan duen ETA erakunde armatuaren inguruan ekologisten helburuak hutsalduak geratzen zirela esaten zutenen artean. Interes eta egitasmoen arteko elkar-keta honek sortutako nahasketa ukaezina izanik, EMERen (Euskal Mugimendu Ekologista) arrakasta demokratizatzailea nahiz ingurugiroaren esparruan lortutakoa, soilik ikuspuntu abertzale eta ekologista bikoitz honen ondorio izan daitekeelako ustetan gaude. Aztertzen ari garen bi mugimenduen arrakastak elkartzen baditugu, intsumisoek mugimendu antimilitarista zabaltzea lortu dutela esan genezake, nahiz eta oraingoz NSrekin bukatu ez; mugimendu ekologistaren aldetik, Lemoiz geldituta dago, eta autobidearen kasuan,

mugimenduak lehen fase batean proposatutako "Lurraldea Alternatiba" aurrera ateratzea lortu ez bazen ere, azkenean, elkarriketaren ondorioz, akordioa lortu zen, eta hasierako egitas-moak nolabaiteko aldakuntza jasan behar izan zuen.

c) Diskurtsoa

Lehen bezala, Neidhart eta Rucht-en (1992) proposamen aztertzaileari jarraituz, aukeratutako bi kasuetan EMERen diskurtso publikoaren ikerketan saiatuko gara.

Diskurtsoaren zein zatiri ematen dio indarra EMEk arazoa bere horretan kokatzeko? Bi kasuetan diskurtso *frame*-a errepresioan, indarretikako boterean oinarritzen da, eta lortu nahi dena, bi egitasmo hauen kontrako borroka abalatu duen euskal gizartearen egon dagoen aipatutako "erresistentziarako kultura"-rekin bat egitea da. Intsumisoen mugimenduaren atalean aditzera eman dugun bezala, Lemoizko zentral nuklearraren kasuan eta egitasmo hori burutzen den garaia kontutan harturik (1976-81), erantzukizun moralaren marko kognitiboa piztu nahian dabilen komunikazio-estrategia baten aurrean aurkitzen gara (Eder 1992). Garai hartako EMERen dokumentazioan²⁵ honelako esaldiekin egiten dugu topo: «estatu faxista», «indarzale eta errepresorea», egitasmo «zentralista», «tekno-frankista», «kapitalista esplotatzailea» eta «bere aberriaz beste egiten duen» enpresa batek bideratutakoa, «Euskal Herriaren kontra dagoen» eta «bere etorkizuna bahitzen duen gizarte militarizatu bat» inposatu nahi duena, etab... Efektu eskandalizatzailea bilatu

25. F.J.Q. "Mugimendu Antinuklearra Euskadin. Bere helburuak lortzeko zorian dagoen borroka eta modelu bat", *Egin* 1979-6-6, 10. orr.

eta aurkitzen da. Diskurtso honek badu eraginik umotzeko zorian dagoen inguru batean eta Komite Antinuklearrak nonahi loratuko dira, ondorioz ematen diren ekitaldiak, bilera publikoak, elkarrizketak, asanbladak, manifestazioak, ibilaldi eta akanpadak, esertzeak, itxialdiak eta bestelako Administrazioaren aurkako desobediencia zibilerako ekintzak, bai eta Iberdueroren aurkako sabotajeak ETaren ekintza armatuekin batera; hauek guztiek Lemoizko zentral nuklearraren egitasmoa deuseztatuko dute²⁶.

Hamar urte geroago, Leitzarango Autobidearen gatazkan, demokratikoa-goia eta zilegiagoa den egitura politiko baten aurrean –azken finean ezberdina den egoera baten aurrean–, diskurtsoa ez da hain bortitza izango. Alabaina, EMerentzat politikariak dira inposizioaren, elkarrizketa ezaren errudunak. Orain, gizartearen aldekoa eta pluralagoa den ikuspuntu batetik abiatuta, jada ez zaio Euskal Herri osoari erreferentzia egiten, inposizioa eta bide errepresiboak bakarrik ulertzen dituztenen aurrean, gatazka sozialak bideratzeko ildorik egokiena elkarrizketa eta negoziazioa dela asumitzen duten benetako demokratei baizik.

Zein izan da EMEn bateratze identitarioa eta, era berean, kanpoarekin lotzerakoan, efektu mobilizatzaile arrakastatsua eragin duen diskurtsoa? Gure ustez bi dira aztertutako adibideetan EMek erabiltzen dituen diskurtso *frame* adierazgarrienak. Alde batetik “lurraren defentsa”, industriaren erasoan aurrean, ingurugiroaren makroegitasmo suntsitzailen aurrean; eta bestetik, “demokrazia” bera,

faktore identitario eta bateratzaile bezala.

Lemoizko zentralaren aurkako borrokan, eta batez ere lehenengo urteetan, lanaren benetako zatiketa bat ematen da, “kontsultategi intelektuala”-ri zegokion lana beteko zuen EKENKren eta astintze, propaganda eta praktikazko mobilizazioaren inguruan mugituko ziren Komite Antinuklearren artean; hori bai, hitzaldiaren ardatz nagusia eta orokorra, Euskal Herria astintzea zen, aparatu ekonomiko-politiko frankistaren ezarpen edo inposizioen ondorioz galtzeko zorian zegoen herri gozo eta orekatsu txiki horren defentsan. Ez zaio gizabanako partikularrez osatzen den herri atomizatu bati hitz egiten, helburu zehatz bat duten eskualde bateko nahiei eta gizakumeei baizik: Euskal Herri independente eta ondorioz ez-nuklearizatu bat.

Leitzarango autobidearen kasuan Autobidearen Kontrako Koordinadorak, administrazioaren “plangintza politikorako ezgaitasuna”-ren eta honen egitasmo txarren aurka, lurraren eta jendearen defentsarako eredu aldarrikatzen hasten denean hartzen duen *Lurraldea* izena ez da kasualitate hutsa. Gizakiak hondatu gabeko Gipuzkoako azken bailara gordetzea da helburua.

“Barrurako” bateratze identitarioa lurraren defentsarekin erlazionatuta badago ere, kanpora begira *frame* demokratikoa egiazkotasunaren adierazpen bezala erabiltzen da: «gu demokratek gara, bide bortizetatik eta kontsentsurik gabe menperatu nahi gaituen arerioaren aurrean».

26. Adieraziak *Egin* egunkarian azaldutakoak dira bai eta mugimenduaren aldizkarietan ere. Ez ditugu dagozkien datak adieraziko, aztertutako artikuluetan errepikatu egiten baitira.

Diskurtso hau, ikusi dugun bezala, Lemoizko kasuan aurkitu dugu, giza talde trinko, zatiketarik gabeko eta ageriko gatazkarik gabeko euskal elkartearen arteko aurkakotasunen ikuspuntutik. Areago, Lemoizkoa ez zen arazo bakarra; amnistia, askatasun demokratikoak, indar errepresiboen desagerketa edota autodeterminazioa egunero isladatzen ziren borroka antinuklearrean. 1979ko apirilaren 27an, Harrisburg-eko istripua izan zenetik hilabete bat betetzen zenean, Bilbon izandako manifestazioaren ondotik, euskal mugimendu antinuklearrak euskaldunen autodeterminaziorako nahiaren eta Espainiako kapitalaren eta gobernuaren egitasmo nuklearren arteko kontra-esana argi asko planteatzen zuen leloa hartu zuen: «Euskadi ala Lemoiz».

«Euskadik, gaur, berriro ere, herritikako, bateratzaile, siglarik nahiz kolorerik gabeko plebiszito honetan, bere ahotsa entzunarazten du» irakurtzen da manifestazio horren amaierako hitzaldian²⁷. Zentralaren egitasmoa aurrera eramateak, Euskal Herriari erabakiak hartzeko eta autogobernurako gaitasuna ezabatzea ekarriko zuen.

Hamarkada bat geroago, zentzu batean ingurugiroari buruzko diskurtsoa alde batera utzirik²⁸, EMEk *frame* demokratikoa erabiliko du, baina beti ere testuinguru berri batetik, ikuspuntu sozietario batetik; komunikazio-bide hori planifikatu dutenen eta instituzioetan erabakiak hartzen dituzten “horien” aurrean “gure” garrantzia azpimarra-

tuz, hain zuzen ere. Orain arerioa etxekoa dugu, baina ez horregatik demokratikoagoa. Borroka ekologistan ere islada daitekeen elkarrizketa eta negoziazio eza da euskal gizartearen “areriorik larriena”. Ajuria-Eneako Hitzarmenarena²⁹ da erantzukizun osoa; Euskal Herriaren erabateko subiranotasunaren bidetik letorke indarkeria politikoaren amaiera, normalizazioa lortzeko akordio politiko baten bila dabiltzan horien isolamendu eta kriminalizazio-ahaleginekin. Argi dago ENAMen barruan, ingurugiroarekiko ardura handiko jendea badagoela, baina borroka ekologistara hurbilduko dituen *frame* demokratiko horren konpartitzea izango da zalantzarik gabe.

Nola eman du aditzera EMEk, herritarrak bere alde pizteko eta mobilizatzeko gai den pronostikorako edota garaipenerako itxaropena? Gure ustetan, gertakizunen segida hori eta batez ere handitzen doan esperientzia mobilizatzailea eragiten duen ikusmira handia da jendeari garaipenaren usaina ekartzen diona.

Euskal Herriaren kasuan, hori guztia elkarrizketa eta negoziazioa bezalako kontsignekin lotzen denean, bozkarien %20a suposatzen duen ezker abertzaletaren oniritzia dakar, azken helburu eta bitartekoak berak baitira.

d) Aukera Politikorako Egitura

Hemen berriro ere intsumisioaren aldean ezadostasunak agertzen zaizkigu. Hamar urte baino gehiagoko epe

27. *Lemoiz (1972-1987...)*, 1987ko neguan *Eguzki* talde ekologista eta antinuklearrak berak argitaratutako liburua.

28. Lemoizko zentral nuklearraren kontrako manifestazioaren (79-4-27) azken mezua. *Egin*, 79-4-28.

29. Eder-ek dioen bezala, paradoxikoki ingurugirozaletasunak hitzaldi ingurunezalearen oinarri izateari uko egin dio. Hitzaldi ingurunezalea ekologia politikoak zuzenduta dago, gero eta gehiago.

batean murgiltzen gabela kontutan harturik, eta garai horretan bai euskal eta bai Espainiako administrazioetan, indarkeria politikoaren aurrean sortzen diren jarreretan eta EME beraren egituraketan ere aldaketa garrantzitsuak ematen direla jakinik, aipagarria deritzogu aukera politikorako egitura aldakor baten aurrean aurkitzen gabela esateari.

EMEren erabateko eta zatikako eskaeren irensteko eta beste modu batean kokatzeko, aparatu politikoaren gaitasunari dagokionez, bi kasutan *input*-a itxia dela esan behar dugu. Oso itxia da Lemoizko zentral nuklearraren kasuan; Franco-ren heriotzaren ondoko garai aurre demokratiko batean gertatzen dira eskakizun hauek, ez dago errebindikazioak bideratuko dituen legezko marko demokratikorik, eta, are gehiago, edonolako obra-lan publiko bat aurrera eramateko herri mailan beharrezkoak diren legezko bideak jartzeko ezintasuna dago; testuinguru honetan Iberduero enpresa eraikitzailea da azken aipamen honen adibiderik argiena.

Euskal erakundeek ezin izango dute bilakaera 90eko lehen urteetan bideratu, *input*-ak itxia izateari uzten ez dion bitartean behintzat. Euskal administrazio berriak edota espainolak mugimendu ekologistari eskaintzen dizkion sarbideak oso eskasak dira,

ezinezkoak direla ez esateagatik. Zenbaitetan betetzen ez den ohizko administrazio prozedura da botere-eliteen egitasmoak aldatzeko ia aukera bakarra³⁰.

Output-ari dagokionez, esan behar dugu Lemoizko kasuan erregimen politikoko aldaketak aurreko administrazioaren egitasmoen aurrera eramateko eta berriaren antzinako erregimenetik jasotako gauzatzeko³¹ gaitasuna ahultzen duela; baina hala ere Leitzarango autobidearen kasuan, politika publikoen inplementazio-gaitasunaren suspertze garrantzitsu baten aurrean aurkitzen gara batez ere euren indarkeriarekiko estrategia bateratuarengatik (Ajuria-Eneako Hitzarmena), non EMEren kontrako istilua kokatzen duten. Nolanahi ere, beto-gaitasun bat bada oraindik, batez ere Gipuzkoan –ingurugiro-gatazka gertatu zen esparru politikoan–, non, Herri Batasuna, ENAMren adierazgarri politikoa, lehenengo nahiz bigarren indarra izan ohi den³².

EMEren elkarketa edota aliatu posibleak aztertzerakoan, esan behar dugu euskal testuinguruan ENAMek mugimendu sozialen dinamikekin bat egiten duela eta, askotan, baldintzatu ere egiten dutela hauek hura. Ez da horrelakorik gertatu, ikusi bezala, in-tsumisioaren aldeko mugimendua-rekin; dena den, logikoa da elkartze,

30. Eusko Jaurilaritzaren egoitzan, PNV-PSOE-PP-EA-EE-UA alderdiek 1988. urtean izenpetutako Ajuria-Eneako Hitzarmena da Euskal Herrian indarkeriaren inguruko estrategien aurrean (ETA, ENAM, HB...) sortutako erakunde-fronte demokratikoa.

31. Margen berri eskasak, erabilgaitzak liratekeen demokrazia partehartzailearen tresnetara mugatzen dira (gehiegizkoa litzateke demokrazia "zuzena" deitzea). Erreferendum-a, soilik gobernu zentralaren eta Herri Lege Iniziatibaren ikusketa zorrotz baten ondoren da erabilgarria, baina hain da handia eskatzen duten sinadura-kopurua –Madrilgo Legebiltzarrean, 500.000 sinadura, Gasteizen, 30.000 eta Iruñea nahiz beste lurralde historiko eta probintzietan 10.000–, non EMEk oraindik ez duen erabili. Ez da horrelako aukerarik izan.

32. *Output*-aren ahulezia, krisian dagoen erakunde-sistema batetik bereizteazina da; A. Gramsçiren hitzak gureak eginaz, «modelu zaharra (frankista) erabat hilik ez dagoenean eta modelu berriak (demokrazia) gailentzea lortzen ez duenean».

elkarlan eta bere kasuan irensketa-fenomeno hauek gertatzea, batez ere mugimendu ekologista, ENAMen eskutik ez bada, bitarteko eta mobilizagai diren sare sozialak bereganatu ezin badabil.

Lehenengo kasuan, Lemoizen, mugimendu antinuklearra ezker abertzalearekin batera sortzen da, eta ondoren, *Lurraldea*-rekin, mugimenduak administrazio barrukoiauren aurrean euren posizioak indartzeko ENAMen laguntza bilatuko du, honekin bat egingo duen elkarrizketa eta negoziazioaren bideari helduz. Lehen esaten genuen bezala, elkar-lanerako harreman hauek ez dira “baketsuak” izango; ETak borroka ekologikoan eskua sartu duenetik bihurtu dira arazo. EMek eta beste zenbait mugimendu sozialek (feminista, antimilitarista, euskararen aldekoa...) elkarrekin egindako ibilbide hau ENAMek mugimendu sozialekin izan duen barne-funtzionamenduan, ekintza-moduetan eta tratuan eman den demokratizazioaren faktore bat izan dela aurreratu nahi genuke hipotesi gisa.

Aztergai dugun bigarren kasu honetan, ezin dezakegu esan elitearen estrategiak mugimendu antimilitaristaren elkarketa-sistemarekin nola-halako antzekotasunik izan duenik. Euskal eta espainiar gorengo politika ekonomikoek ez dute EMerekiko enfrentamendu, errepresio eta giza polarizazio kriminalizatzailearen estrategia baino erabili. Hau guztia, noski, bortizkiago eman zen Lemoizen kontrako borrokaren garaian, eta apalago Lurraldearenean. Edonola ere, aurretik nahasiriko egoera batetik abiatzen gara, euskal instituzioen eta hauen aldeko komunikabideen inguruan murgiltzen ez diren talde, erakunde eta mugimendu guztiak, ENAMekin mantentzen

dituzten harremanak direla eta, aurretik gaitzesten baitira. Azken honen alboratze eta isolamenduko garairik gogorrenetan (Ajuria-Eneako Hitzarmena 1988), “arerio nagusia”-rengana hurbildu eta harremanak izateak, mugimendu ekologistaren aurkako dinamika baztertzaille-errepresiozalearen berpiztea ekarriko du. Ondoriozko giza polarizazioa eta elkartu ezineko postura politiko sozial ezberdinak izango dira emaitzarik ezagunenak.

Zer eragin dute aurretik aztertutako aukera politikorako egiturarengan eta bere *input-output* dimentsioetan, elkartze-sistemak eta *elite alignment*-ak? Gure ustez, bi osagarri hauek Lemoizko kasuan zalantzarik gabe erabakigarria izan den mugimendu ekologistaren arrakastari bidea ireki diote. Ondoko zirkunstantzien konbinazioa izan zen garaipen ekologistarako bidea erabat ireki zuena: mugimendu antinuklearraren eskakizunak bideratzeko politika negatibo bat, euren egitasmoak aurrera ateratzeko indar eza, egitasmo nuklearrak tratatzen zituzten posizioen elkartze berrindartzaile eta zabaltzailea eta azkenik diktaduraren eta demokraziaren artean aldakorak eta ondorioz legitimazio gutxikoak ziren gorengo edo eliteak izatea.

Lemoizko zentral nuklearraren eraikuntza, 1983an “Plan Energético Nacional” delakoan sinatutako moratoriaren ondorioz, Madrilgo Gobernuak (PSOE) bertan behera utzi behar izan zuen.

Autobidearen eta Lurraldearen kasuan, ikusi bezala, arrakasta ez dagokio soilik gatazkaren eduki ekologistari, elkarrizketa eta negoziatioari baizik; hau da, Leitzarandik igarotzen zen Gipuzkoako ibilbidearen hasierako

egitasmoa aldatu zuen 1992ko apirilean Gipuzkoako Foru Aldundiak, eta hau zuzentzen zuen EAJren eta Lurraldea Koordinadoraren artean sinatutako akordioa izan zen giltzarria.

V. Arrakastaren eta demokratizazioaren azterketa: zenbait ondorio

1. Ohi denez, mugimendu ekologistek eta antimilitaristek murgiltzen diren esparruetan (*issue domain*) lortu dituzten arrakastak ez datoz bat. Mugimendu ekologistak bi garaipen oinarrizko eta zuzenki neurgarriak lortu ditu azkenaldi honetan: zentral nuklear baten geldiketa eta autobide baten ibilbide erasogarriaren aldaketa (*Substantive success: absolute/relative veto, and reactive success*, bietan. Gamson, Kitschelt, Kriesi-k (1991) aipatuta). Aldiz, mugimendu antimilitaristak ez du oraindik oinarrizko arrakasta ikusgarririk lortu, nahiz eta mugimenduaren zabalkuntza, soldadutzaren aurrean gizarteak erakutsitako gaitzespena edota *the change of authorities policy*-a arrakasta honen nahikoa frogatzat har daitezkeen (*Expresive, for instance*; Mac Adam 1982). Areago oraindik, Klandermans-ek adierazten duen bezala (1984, 1988), emaitza konkreturik lortu ezean, kontsentsuaren mobilizazioan lortutako arrakasta –kasu honetan antimilitarista–, baliabideak mobilizatzeko erabilgarria gerta dakiguke etorkizunean.

2. Alabaina, lortutako arrakasta dena delakoa bada ere, zentzu zabal batean arrazoiak berberak direla esan daiteke: diskurtso-estrategia (*frame*

strategy) eta aukera politikoaren egituraren (*political opportunity structure*) arteko konbinazio ezin hobea. Diani-k dioen bezala (1994) aukera politikoak oso modu ezberdinetan egon daitezke diskurtso-prozesuarekin erlazonaturik. Zenbait ikerlarik APEri ematen diote lehentasuna (Kriesi 1991; Snoww and Benford 1992); beste batzuek aldiz, aurreko diskurtso-estrategiek zuzenean APEri erasotzen diola diote, el-karketa³³ modu zenbait indartuz edota trabatuz, nahiz eliteen bateratze eta estrategia sendotuz edota ahulduz (Johnston 1991 etab.).

Baliteke, ondoren ikusi ahal izango dugunez, gure kasuan eragina bi aldetatik etortzea: mugimenduen diskurtsoak APEren elementu faboragarri horiek suspertu ditu, eta aldi berean aukera politikorako egiturek diskurtso-modu zehatz bat definitu dute, euren mobilizatorako eraginkortasuna areagotuz. Bestalde, Gamson-ek adierazten duen bezala (*framing political opportunities*, 1992) bi azterketa gai hauen arteko barne-harreman zoragarri hau –*frame* eta APEren artekoa hain zuzen ere–, aukera egituraren beraren enmarkamenduaren bidetik gerta daiteke.

Zentzu honetan, Euskal Herrian ematen diren mugimendu berri hauen arrakasta, aukera egitura eta diskurtso-estrategien arteko elkarketa konplexu baten fruitu da, non ikusi berri ditugun ildo teoriko zenbait, modu batera zein bestera azaltzen diren. Ikus dezagun.

Hala, bi mugimenduek, ingurugiroaren (Mugimendu Ekologista) defen-

33. Areago, euskal esparru politikoan aurki daitezkeen instituzioen artean soma dezakegun deskordinazioa eta nolabaiteko gaztetasun horrek, ez du eraginkortasun instituzionala gehiegi errazten.

tsarako nahiz estatuarenganako erresistentziarako (Mugimendu Antimilitarista) hitzaldi identitarioak eraginkorki bat egiten jakin izan dute inolako zalantzarik gabe, euskal esparru politikoa erlatiboki nagusitzat jo dezakegun *frame* batekin: *master frame* abertzalea.

Jakina denez, APEren inguruan sortzen den hitzaldi-proposamen honek, Euskal Herriko mugimendu sozial berrien sistemaren kontrako aliatu indartsuenaren aldetik –ENAM-en aldetik–, laguntza-estrategia bultzatu du. Kasu batean beharbada, aliatuen laguntza izango zen lehenik eta ondoren diskurtsoa (Mugimendu Ekologista). Bestean (Mugimendu Antimilitarista) diskurtsoa ENAMekin izandako elkarlana baino lehenagokoa da. Nolanahi ere, mugimenduen arrakasta posibilitatearen indartzearen ildotik, interesgarria da ENAMi dagozkion diskurtsoak eta aukera-esparruak zenbaterainoko elkar batasuna lortu duten azpimarratzea.

Ildo beretik, APE eratzten duten beste elementuen aldean, –instituzio-egitura edota sistema politikorako sarbideak eta eliteen egonkortasun nahiz estrategia–, mugimenduen diskurtso-estrategia konplexuagoa izan da.

Euskal Herriko buruhandikeria instituzionala, bai eta Ajuria-Eneako pakto antiterroristaren ondotik, edozein instituzioz kanpoko militantziaren aurrean gatazka-sistemak hartzen dituen estrategia kanporatzaile, errepresibo eta banatzaileak, mugimenduen diskurtso bihurtzen dira (*Framing Political Opportunities*).

Mugimendu ekologistak “elkarrizke-

ta eta negoziazioa” eskaintzen ditu itsukeria instituzionalaren aurrean; aldi berean, mugimendu antimilitaristak bere “identitate ez-biolentoa” proposatzen du instituzioaren praxiaren aurrean; honek, ordea, ENAMekin, bere indar armatua den ETArekin eta biolentziarekin identifikatu nahi du protesta oro. Sistema politikorako sarbideen ezak eta “instituzioz kanpoko=biolento” identifikazioaren ez-egokitasun nabariak, gatazka-sistemaren estrategia ia jasanezin bihurtzen dute. APEren balioespenari buruzko *frame competition*-ak –*demokrazia* eta *indarkeria* terminoen esanahiari buruzkoak– mugimenduen alde jotzen du. Bestalde, egoera honek berak eliteen artean desoreka eragiten du, pakto antiterrorista baten inguruan nolabaiteko adostasuna lortu duten baina inola ere ekologista edota antimilitarista bezalako beste *issue*-n inguruan alineagarriak ez diren eliteen artean, hain zuzen ere³⁴. Haatik, mugimendu antimilitaristaren kasuan, honen osagai ez-biolentoak zenbait elitetatik datorren jokaera ez hain baztertzailera lagundu du, euskal gazteria indarkeriaren bidetik aldentzeko izan zezakeen baliagarritasuna aintzakotzat hartu izan baitute.

Azken batean horrek guztiak, –elite ez-egonkorak (*breakdown of consensus among elites*) eta lotura faboragarriak–, euren erabakiak inposatzeko instituzioen gaitasuna ahuldu du, mugimenduen arrakasta erraztuz (Jenkins 1987, eta Boender 1985, Klandermans-ek (1989) aipatuak.).

3. Hurrengo eztabaida-maila ez da hain begibistakoa. Aipatutako mugimenduek euren gaietan erabateko

34. *Availability of allies/ Tarrow 1989, or Alliance system strategy/ Kriesi 1991, Stability of political alignments / intra-elites conflict, Tarrow 1989; Conflict system strategy, Kriesi 1991.*

arrakasta lortu dutela egia bada ere, zenbaterainoko garrantzia izan du arrakasta horrek Euskal Herriko demokratizazioaren suspertzean? Zer nolako demokratizazioaz ari gara hitz egiten?

Lehenik eta behin, sarreran planteatutako nondik-norako demokratikoak berreskuratu behar ditugu: poliarkia/ pluralismoa, komunikazioa/*issue* berriak eta kultura/balore demokratikoak, eta ondoren, maila bakoitzean mugimenduen eragina aztertu. Ikusgarria gerta dakiguke, nondik-norako hauetariko bakoitzean eman diren arrakasta demokratizatzaileak nola izan daitezkeen aztertuak ikustea, APEren azterketaren bidez (esparru politikoaren berregituraketa) lehena eta *frame* azterketaren eskutik bigarren eta hirugarrena (*frame availables*-en ugaritzea eta kultura *master frames*-en berrikuntza).

Euskal mugimendu ekologistaren izaera are politikoagoa, parte hartze politikoaren, aniztasunaren eta aktore erabakigarrien (poliarkiaren) ugaritzearen esparruan, arrakasta demokratizatzaileak ekarri ditu zalantzarik gabe. Efektu demokratizatzaile horren adibiderik argienetarikoa Leitzarango autobidearen arazoaren aurrean lortutako adostasunezko hitzarmenak kaltetutako lurraldeetako (Nafarroa eta Gipuzkoa, batik bat) prozedura instituzionaletan eragindako zatzada izan daiteke. Nafarroan, ingurugiroarekin zerikusirik izan dezakeen edonolako gatazkari aurre egingo dion eta aldi berean zuzenduko duen batzorde baten sorrera (1992) eta herritarren parte hartzerako mekanismo berri baten sorrera Gipuzkoan (NIP/IGP), institu-

zioek gatazka honetan jasotako egurraren ondorio zuzena dira. Honela, IGPak autobide-egitasmo berri baten gainean herritarren iritzia ezagutzearen erabiliak izan dira (Urbina-Maltzaga, 1994), efektu demokratizatzaile hori, *decision-making*³⁵ praktikan zuzenki neurgarri bihurtuz.

Aldiz, demokratizazio arlo honetan bederen, mugimendu antimilitaristaren eskutik eman den eragin demokratizatzailea baino txikiagoa izan da. Alabaina, *issue* antimilitaristaren inguruan eman den talde aktoreen ugaritzea eta euren presentzia politikoa, euskal testuinguruan gertatu den eduki poliarkiko eta pluralisten zabalkuntzaren lekuko bihurtu da. Mugimenduek aurkeztutako ehundaka mozioek jaso dute udalen oniritzia; bai eta Eusko Legebiltzarrean ere. Euskal esparru politikoa, beraz, aberatsagoa da, eta demokratikoagoa.

Beste alde batetik, parte hartzearen gorakada alde batera utzirik, demokratizazioa Habermas-en *komunikazio* terminotik abiatuta ere neur daiteke. Oso ezaguna da gaiak (*issue*) *public agenda*-n kokatzeko mugimendu berriek duten abilezia (Mazur 1981; Tierney 1982, etab.), era berean *issue* horien inguruan komunikazio publikoa areagotuz. Eder-ek (1992) defendatutako ikuspuntu neoinstituzionalistatik begiratuta, horrelako efektuak eta hauek dakartzaten eztabaida publikoen gorakada, «are good for rationalization in terms of democratic principles», edota Melucci-ren hitzetan (1988), «boterearen alderdi iluna erakusten dute, eta boterearen izaera arbitrarioaz babesteko aukera ematen diote giza taldeari». Alde honetatik bi

35. Ez dezagun ahantz Euskal Herriaren berezitasuna den elite nazionalista eta estatalisten arteko beharrezko bereizketa.

mugimenduek arrakasta demokratizatzaile argia lortu dute.

Gai³⁶ berri hauen sorrerari etekina ateratzen saiatu direnak saiatu badira ere, ekologiak/antimilitarismoak euskal *public agenda* guztia bete du azken urte hauetan³⁷.

Hainbeste areagotu da komunikazioa gai hauen inguruan –batez ere ekologistan– euskal gizartean zehar, non ez baita sekula gertatuko inolako egitasmo publikorik herriaren iritzia ezagutu gabe burutzea³⁸.

Era berean, interesgarria gerta dakiguke mugimendu abertzalearen (ENAM) diskurtsoan eta praktikan mugimendu ekologista eta antimilitaristaren arrakastak izan dituen ondorioak adieraztea. ENAMek mugimenduen diskurtso demokratikoa (ikus sarrera) aberastu duen bezala, ukaezina da ezker abertzalearen diskurtsoaren zati diren *issue*-n ugaltzea ere gertatu dela. Egun, mezu abertzaleak eduki ekologista, antimilitarista, internazionalista edota bestelakoak hartu ditu (ez-

-biolentoak? Ikus³⁹ ENAMen inguruan ematen den *Elkarri*-ren sorrera): K. Eder-ek ez bezala (1993), ez dugu uste mugimendu berrien erregulazio instituzionala adibidetzat har dezakegunik, gaur egun eta Euskal Herrian, nortasun nazionalaren gaiaren instituzionalizazioa modu berrizatu batez erabakitzeke, baina argi asko dago mugimenduetatik datozen gizabanakoen subiranotasun-planteiamendurik erradikalenak onartzen ez badira ere, ENAM demokratizatu egin dela askoz irekiagoa den diskurtso baten bidez; are gehiago, askoz tolerante, ireki eta demokratikagoa den barne-praktika baten bidez⁴⁰.

Azkenik, lehen aipatutako mailetatik hirugarrenean, efektu demokratizatzaileen nondik-norakoak oso ebaluazio zaila du. Hortaz, konplikatua samarra deritzogu demokratizazio hori zertan datzan adierazteari.

Mugimendu sozialak berez demokraziaren gotorleku ez direla onartzen badugu⁴¹, noraino esan daiteke mugimenduen arrakastak gizartearen

36. Bestalde, NIPak, Alemanian ezagutu denak, edo beste *procedures of public consultation* batek ere ez du eragin publiko eraginkorrik bermatzen. Gai honi buruz, ikus Rochon 1983, D. Nelkin and M. Pollack (1981) aipatuz. Batez ere sasi-galdaketa moduak direnean edota administrazioak berak bere kabuz planteatutako eredia gaitzesten duenean: «Autobide berria NIPak adierazitakoaren gainetik ere egingo da» (zenbait euskal politikariren adierazpenak 1994. urtean zehar). Aldiz, *making* erabakiari eta mugimenduen eraginari dagokionez, ikus, Huberts 1989.

37. Diskurtsoaren “espropiazioa” betiereko zerbait da Euskal Herrian ere. Cf. Rochon 1983 eta Eder 1992.

38. Antimilitarismoari dagokionez, Euskal Herriko egunkariak, bere osotasunean, kontzientzi eragozpenari buruzko 76 berri argitaratu zituzten 1986an. 1990. urtean, 586 izan ziren (iturria, Ajangiz 1994). Mugimendu ekologistaren kasuan, instituzioen aldeko *El Correo* egunkariak, ekologiarekin zerikusia duten 9 berri ematen ditu 1986ean batezbeste; 1992an, 59 dira. Mugimenduari lotuagoa dagoen *Egin* egunkariak, 1986an argitaratu zituen 27etatik, 85era pasako da 1992an. Iturria: guk geuk lortutako informazioa.

39. Lemoiz eta Leitzaranen lortutako arrakasta dela eta, azken hiruzpalau urte hauetan instituzioen ingurugiro-egitasmoen kontrako ahotsak areagotu egin dira: itsas portuen, erraustegien, harrobien, urtegien, autobideen eta abarren aurka.

40. 1991-2ko barne-etzabadarako *Urrats Berri* izeneko azken prozesuetan argi asko geratu da hau.

41. Ildo honetatik, Eder 1993; kontra, –besteak beste– Boyte 1980, eta Beck 1974, Rochon (1983) aipatuak.

balore demokratikoen zabalkuntza eragiten duena? Edota Touraine-ren ildotik, zenbateraino dira mugimendu hauek industrializazio ondoko gizartearen demokratizazio berriaren subjektu? Akaso, Rochon-ek dioten bezala (1983), mugimenduak ez dabilta *deep democracy*-aren bila; ez dira demokraziaren planteamendu sakonean saiatzen. Baina egia da baita arazoa ez datzala soilik testuinguru politiko zehatz batean erabilgarri ditugun diskurtsoen bidez edota aktoreen ugalketa sinplearen bidez lortutako demokratizazioan.

Nahitaezkoa da poliarkia horrek, pluralismo horrek, zabalagoa den

komunikazio horrek, aldaketa kultural eraginkorra ekoiztu duen ala ez jakitea, hain zuzen ere, euskal herritarren artean demokraziaren baloreen zabalkuntza lortu duen ala ez jakitea: gizarte zibilaren subiranotasuna, gizabanakoaren eta taldearen autode-terminazioa, herri-erabakien balorea, elkarrizketa, tolerantzia, talde txikienganako begirunea...

Egiatan, ezin dezakegu besterik gabe esan hori guztia Euskal Herrian gertatu denik⁴², baina egunen batean, zumardiak zabaldurik, gizaseme berri bat izango badugu, mugimendu sozialen eskutik etorriko da. Ez dugu inolako zalantzarik.

Bibliografia

- Ajangiz, R., (1994): *La opinión pública ante la objeción de conciencia y lo militar*, Hirugarren zikloko ikerketa, Informazio eta Gizarte Zientzien Fakultatea, UPV-EHU.
- Ajangiz, R., Manzanos, C., & Pascual, J., (1991): *Objetores e insumisos*, Eusko Jaurlaritz, Gasteiz.
- Allende, J., (ed.) (1990): *Ecología y ecologismo*, Cuadernos de Extensión Universitaria, Euskal Herriko Unibertsitatea, Bilbo.
- Auvrov, N., (1983): *Objecteurs, insoumis, deserteurs*, Stock, Paris.
- Ayerdi, V. & Gaviria, M., (1992): "Nacionalismo y Movimientos ecológicos", in *Movimientos Sociales y Nacionalismo*, Instituto de Estudios sobre Nacionalismos Comparados, Gasteiz.
- Bachrach, P., (1968): *Theory of democratic elitism*, Londres, U.P.
- Barcena, I., (1994): "Etnoecología o Econacionalismo? Breve introducción a la realidad ecologista y nacional en Estonia, Ucrania y Euskadi", *Ecología Política*, 7 zkia., Bartzelona.
- Brand, K.W., (1992): "Nationalist Movements in Europe and Social Movement Theory", in *First European Conference on Social Movements*, Berlin.

42. Frankismoaren ondoko aldaketa politikoko lehen urteetako arduratasun demokratiko bereziak, nolabaiteko ondoezari lekua utzi badio ere –jada ez du jendeak defizit demokratikoa arduraren nagusiztat–, oso adierazgarria da, batez ere diskurtso demokratiko baten inguruan, *Lurraldea* bezalako koordinadora ekologista baten arrakastak, talde ekologista bat mugimendu pazifista batean bihurtzeko *consensus mobilization* nahikoa lortzeko bide ematea: *Elkarri* (Negoziazioa eta elkarrizketa, 1992), Euskal Herrian indarkeriaren arazoa bideratzeko bitartekotzat berriro ere negoziatzioa eta elkarrizketa planteatzen dituen. Zihurrenik aurrerantzean arazo hau aztertuko badugu ere, azkenaldi honetan aipatu mugimendua Euskal Herrian izaten ari den arrakasta ikusita, balore demokratikoak ENAM-tik gertu dagoen pazifismora eraldatutako talde ekologista baten eskutik ari direla zabaltzen pentsatzera eramanez gaitzake.

- Clark, R. P., (1990): *Negotiating with ETA. Obstacles to Peace in the Basque Country, 1.975-1988*, Nevada University Press, Reno, Nevada.
- Comisión por una costa vasca no nuclear, (1977): *Hacia una Costa Vasca nuclear? (El caso de Lemoiz)*, Self-edition, Bilbo.
- Dahl, R. A., (1971): *Poliarchy, Participation and opposition*, Yale U.P., New Haven.
- Della Porta, D. and Rucht, D., (1991): "Left-Libertarian Movements in context: A Comparison of Italy and West Germany, 1965-1990", *WZB*, Berlin.
- Diani, M., (1994): "Framing processes and political opportunities, explaining the success of the Northern league in Italy", *ECPR Joint Sessions*, Madril.
- : "The Concept of Social Movement", *The Sociological Review*, 38 zkia.
- Diani, M., Van Der Heijden, H.A., (1993): "Anti-nuclear Movements Across Nations: Explaining Patterns of Development", in H. Flam. (arg.), *States and Anti-nuclear Movements*, Edinburgh University Press, Edinburgh.
- Douglass, W. A., Zulaika, J. (1988): "A Critique to Recent Trends in the Analysis of Ethnonationalism", *Comparative Study in Society and History* 32, 2, 238-57.
- Eberly, D., Sherraden, M. (arg.) (1990): *The Moral Equivalent of War? A study of Non-Military Service in Nine Nations*, Conn: Greenwood, Westport.
- Eder, K., (1992): *Framing and Communicating Environmental Issues Discourse Analysis of Environmentalism*, IUE, Florence.
- (1993): *Problems of Democracy. A Challenge to Institutional Politics by Social Movement Organizations?*, IUE, Florence.
- Eguzki, (1987): *Lemoiz 1972-1987...*, Self-edition, Euskadi.
- Eide, A., Mubanga-Chipova, Ch., (arg.) (1988): *Conscientious Objection to Military Service. A United Nations Report Prepared in Pursuance of Resolutions 14 (XXXIV) and 1.982/30 of the UNESCO Commission on Human Rights, Sub-Commission on Prevention Of Discrimination and Protection of Minorities*, United Nations document E.CN4/Sub. 2/1.983/30, United Nations, New York.
- Eisinger, P.K., (1973): "The Conditions of Protest Behaviour in American Cities", *American Political Science Review* 67, 11-28.
- Gallagher, T., (1991): "Autonomy in Spain: Lessons for Britain?", in B. Cook (arg.), *National Identities. The Constitution of the United Kingdom*, Basil Blackwell The Political Quarterly, Oxford.
- Gamson, W. A. and Meyer, D. S., (1992): "The Framing of Political Opportunity", *Conference European/American Perspectives on Social Movements*, Washington, D.C., Abuztua 13-15, Washington.
- Giannini, G., (1987): *L'Obiezione di coscienza al Servizio Militare*, Edizioni Dehoniane, Napoles.
- Goodwin, B., (1988): *El uso de las ideas políticas*, Península, Bartzelona.
- Heiberg, M., (1988): "Saints and sinners: An Analysis of the Political Violence of ETA", in M. Heiberg (arg.), *Internacional Terrorism as a Political Weapon*, Ellmann Ellingsen, Oslo.
- (1989): *The Making of the Basque Nation*, Londres.
- Huberts, L.W., (1989): "The influence of Social Movements on Government Policy", in JAI Press Inc. *International Social Movement Research* 2, 395-426.
- Hunt, S., Benford, R., Snow, D., (1993): "Framing processes and identity construction in collective action", *Annual Meeting Midwest Sociological Society*, Chicago.
- Ibarra, P. (arg.) (1992): *Objeción e insumisión*, Fundamentos, Madril.
- Johnston, H., (1991a): "Antecedents of coalition: Frame alignment and utilitarian unity in the Catalan Anti-francoist opposition" in L. Kriesberg (arg.), *Research in Social Movements, Conflict and Change*, XIII, Conn.: JAI Press, Greenwich.
- (1991b): *Tales of nationalism: Catalonia 1939-1979*, NJ: Rutgers University Press New Brunswick.

- Kaase, M., (1993): "Movimientos Sociales e Innovación Política", in R.J. Dalton eta M. Kuechler (arg.), *Los nuevos movimientos sociales*, Alfons el Magnánim, Valentzia.
- Keane, J., (1993): *Democracia y Sociedad Civil*, Alianza, Madril.
- Kiljunen, K. & Vaananen, J., (1987): *Youth and Conscripton*, W.R.I., Finland.
- Kimmel, M. S., (1989): "Defensive Revolutionaries: the Moral and Political Economy of Basque, Breton and Quebecquois Nationalism", *Research in Social Movements Conflict and Change*, Vol. II, JAI Press.
- Klandermans, B., (1989): "Organizational effectiveness", *International Social Movement Research*, Vol 2, 383-394, JAI Press inc.
- Kitschelt, H., (1986): "Political Opportunity Structures and Political Protest: Antinuclear Movements in four democracies", *British Journal of Political Science*, 16 zkia.
- Kriesi, H., (1991): "The political Opportunity structure of new social movements: Its impact on their mobization", [eztabaida-idatzia] Wissenschaftszentrum, Berlin.
- Lijphart, A., (1972): *Democracy in plural Societies: A comparative exploration*, New Haven.
- _____, (1984): *Democracies*, New Haven.
- Linn, R., (1989): *Not Shooting and Not Crying: Psychological Inquiry into Moral Disobedience*, Conn.: Greenwood Press, Westport.
- Lukes, S., (1974): *Power: A radical view*, Macmillan.
- Macpherson, C.B., (1982): *La Democracia Liberal y su época*, Alianza, Madril.
- Melucci, A., (1988a): "Social Movements and the democratization of everyday life" in J. Keane (arg.), *Civil Society and the State*, Verso, Londres.
- _____, (1988b): "Getting involved. Identity and Mobilization in Social Movements", *International Social Movements Research*, vol 1. JAI Press.
- _____, (1988c): "Social Movements and the Democratization of everyday life" in J. Keane (arg.), *Civil Society and the State*, Verso, Londres.
- Morlino, L. (1992): "Partidos políticos y consolidación democrática en el Sur de Europa" in J. Benedicto eta Reinares (arg.), *Las transformaciones de lo político*, Alianza, Madril.
- Moskos, Ch., Chambers II, J.W., (1993): *The new conscientious objection*, University Press. N.Y., Oxford.
- Neidhart, F., Rucht, D., (1992): "Towards a Movement Society? On the possibilities of instituzionalizing Social Movements", *First Conference on Social Movements and Societies in Transition*, Berlin.
- Nelkin, D., Pollak, M., (1981): "The Atom besieged", MIT Press, Mass., Cambridge.
- Offe, K., (1986): *Partidos políticos y Nuevos Movimientos Sociales*, Sistema, Madril.
- Olafsson, G., (1988): "After the Working Class Movement? An essay on What is "new" and what is "social" in the NSM", *Acta Sociologica*, 31 zkia.
- Pasquino, G., (1988a): *Instituzioni, Partiti, Lobbies*, Il Mulino, Bologna.
- _____, (1988b): "Las Democracias " in G. Pasquino (arg.), *Manual de Ciencia Política*, Alianza, Madril.
- Presed, D., Smythe, T. (arg.) (1968): *Conscription. A World survey*, WRI Publication, Londres.
- Rochon, T. R., (1983): "Political Change in ordered Societies. The rise of Citizens' movements", *Comparative Politics*.
- Sartori, G., (1987): *The Theory of Democracy revisited*, Chatham.
- _____, (1992): *Elementos de Teoría Política*, Alianza, Madril.
- Schumpeter, J., , (1943): *Capitalism, Socialism and Democracy*, Allen & Unwin, New York.
- Shabad, G., Llera, F. J., (1990): "Political Violence in a Democratic State: Basque Terrorism in Spain", in M. Crenshaw (arg.), *Political Violence in Western Democracies*.

- Snow, D. A., Benford, R. D., (1988): "Ideology, Frame Resonance, and Participant Mobilization", in B. Klandermans, H. Kriesi, S. Tarrow (arg.), *From Structure to Action: Comparing Social Movement Research Across Cultures. (International Social Movement Research 1)*, 197-218, Conn.: JAI Press, Greenwich.
- Snow, D. A., Rochfort, E., Burke, J.R., Worden, S. K., Benford, R. D., (1986): "Frame alignment Processes, Micromobilization, and Movement Participation", *American Sociological Review* 51, 464-481.
- Tarrow, S., (1989): *Democracy and Disorder, Protest and Politics in Italy 1965-1975*, Oxford University Press, Oxford.
- _____, "Struggle, Politics and Reform: Collective action Social movements and Cycles of protest", *Western Societies Paper* 21, Cornell University, Ithaca, NY.
- Touraine, A. et al., (1980): *La Prophétie anti-nucléaire*, Seuil, Paris.
- Tucker, K. H., (1991): "How new are New Social Movements?", *Theory, Culture and Society*, Vol 8, Sage Press, Londres.
- Wieviorka, M., (1988): *Sociétés et Terrorisme*, Rayard, Paris.
- Zulaika, J., (1988): *Basque Violence: Metaphore and Sacrament*, Nevada University Press, Reno, Nevada.